



2022UDOS0005

Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza
 APARTEKO BILKURA: 2022/05/06

Acta: Pleno Municipal
 SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/05/2022

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
 Estibalitz Mujika Tolaretxipi
 Jon Zulueta Berastegi
 Garazi Usandizaga Zubiria
 Julian López Aracama
 M^a Teresa Etxeberria Arteun

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
 Ascensión Parrón Peguero
 Petra Romero Pozo

EAJ-PNV

Alexander Huitzi Alfonso
 M^a Sagrario Ruiz Fernández
 Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos

M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000005
Eguna	2022/05/06
Hasiera	14.15
Amaiera	14.25

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Xabier Fondón Pajares – EH Bildu

Oscar Mendo González - PSE-EE

Maria Jose Izagirre Iturzaeta - EAJ/PNV

Gai Zerrenda:

1. Andoaingo Tokiko Energia Komunitatea-Tek Andoain elkartearen proposamena..

Orden del Día:

1. Propuesta de constitución de la asociación Andoaingo Tokiko Energia Komunitatea-Tek Andoain..

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Como quiera que existe quórum suficiente y asisten el presidente y secretario, queda válidamente constituida la sesión.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte ezohiko udalbatzar honetara, hau da, 2022ko maiatzaren 6ko udalbatzarrera.

“Decía que buenos días a todas y a todos, sean bienvenidos al pleno extraordinario que celebramos hoy, 6 de mayo de 2022.

“Hasi aurretik, esan hiru zinegotzi bajaran daudela eta haien bozkak delegatu egin dituztela. Batetik, Oscar Mendo jaunak, José Luis Verdasco jaunarengan eskuordetu du, María José Izagirre andreak, Imanol Goenaga jaunarengan eta Xabier Fodón jaunak, Andoni Alvarez jaunarengan.



Andoingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/05/06

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/05/2022

“Decía que,tenemos a tres concejales que están de baja y por lo tanto los votos han sido delegados en otras compañeras y compañeros, por un lado el Sr. Oscar Mendo ha delegado en D. José Luis Verdasco, la Sra. Concejala María José Izagirre en D. Imanol Goenaga y D. Xabier Fondón en D. Andoni Alvarez.

“Orain bai, hasiera emango diogu gaurko batzarraldiari.”

1. Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-Tek Andoain elkarte eratzeko proposamena.

I. “ANDOAINGIO TOKIKO EMERGIA KOMUNITATEA -TEK ANDOAIN” elkarte sortzeko izapidetutako espediente aztertu da.

II. Izaera pribatuko elkarte da, irabazi-asmorik gabea, eta bere helburu eta jardueren artean energia-jasangarritasunari laguntzea dago, udalerriko bizilagunek eta saltokiek energia berriztagarria ekoiztea eta kontsumitzea sustatuz, udal-interesekotzat jotzen baitira; bazkideek egindako ekarpenez elikatuko da, eta, hala badagokio, ekarpen publiko eta pribatuez.

III. Elkartzeko eskubidea, oro har, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak arautzen du. Lege horren eremuan sartzen dira irabazi-asmorik ez duten eta berariazko elkarte-araubidearen mende ez dauden elkarte guztiak (1.2).

IV. Kontuan hartu da Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 2.6 eta 3.g) artikuluek ere aukera ematen dietela erakunde publikoei beren artean edo partikularrekin elkartzeko eskubidea baliatzeko, sustapen- eta laguntza-neurri gisa, betiere haien baldintza berberetan egiten badute, elkartearen funtzionamenduan nagusitasunezko jarrera saihesteko, salbu eta elkartearen eratz- eta arautze-arauek horretarako aukerarik ematen ez badute.

V. Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, botere publikoen betebeharra da, bakoitzak bere eskumenen esparruan, interes orokorreko jarduerak egiten dituzten elkarten eraketa eta garapena sustatzea.

VI. Elkartek eratzeko prozedura elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren (LORDA-) 5. artikulutik 10. artikulura bitartekoetan arautzen dela kontuan hartuta.

VII. Kontuan hartuta funtzionamendu-araubidea eta elkartekideena Estatutueta jaso behar direla eta Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren -LORDA- 11.etik 18.era bitarteko artikuluetan xedatutakoetara egokituko dela.

VIII. Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 5. artikulua ezartzen duenez, elkarteak legez eraturako hiru pertsona fisiko edo juridikok edo gehiagok osaturako akordioaren bidez eratzen dira, eta konpromisoa hartzen dute helburu zilegi, erkide, interes orokorrekoak edo partikularrekoak lortzeko bitartekoak eta jarduerak bateratzeko, eta Elkartearen funtzionamendua arautzen duten estatutuak ematen zaizkie.

IX. Kontuan hartuta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 6.2 artikulua eskatzen diela dagokion elkarte sartzeko nahi duten pertsona juridikoei organo eskudunak baliozkotasunez hartutako erabakiaren ziurtagiria behar dela ezartzen duela, zeinetan agertzen baita elkarte eratzeko eta elkarteko kide izateko borondatea eta elkarte ordezkatuko duen pertsona fisikoaren izendapena.

X. Kontuan hartuta Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ere antzeratsuan arautzen dituela elkarteak.

XI. Kontuan hartuta Sektore Elektrokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6.1.j) artikulua energia berriztagarrien komunitateak horrela definitzen dituela: “son entidades jurídicas basadas en la participación abierta y voluntaria, autónomas y efectivamente controladas por socios o miembros que están situados en las proximidades de los proyectos de energías renovables que sean propiedad de dichas entidades jurídicas y que estas hayan desarrollado, cuyos socios o miembros sean personas físicas, pymes o autoridades locales, incluidos los municipios y cuya finalidad primordial sea proporcionar beneficios medioambientales, económicos o sociales a sus socios o miembros o a las zonas locales donde operan, en lugar de ganancias financieras.”

XII. Kontuan harturik Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari



Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/05/06

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/05/2022

buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak betebeharrak garrantzitsuak ezartzen dizkietela administrazio publikoari beren helburuak lortzeko, besteak beste, energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, energia-faktura murriztea edo beste administrazio batzuekin eta partikularrekin akordioak bultzatzea, jasangarritasun handiagoa eta jasangarritasun handiagoa lortzeko.

Ikusirik, Jarduera Fisiko eta Kirolak Batzorde Irizpenemakaren 2022ko apirilaren 29ko irizpena.

Romero andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak eta Jarduera Fisikoa eta Kirola Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, eguerdi on guztioi. Osoko Udalbatzarraldi honetara ekartzen Andoaingo Tokiko Energia Erkidegoa sortzeko proposamena. Energia erkidegoak herritarrek, administrazioek edo enpresa txikiak osatutako erakundeak dira eta beren tokian, bertan energia sortzeko, erabiltzeko eta kudeatzeko antolatzen dira.

“Erkidego horien helburua, energia aurrezte eta energia eraginkortasuna lortzea da. Ildo horretan, Ingurumen Teknikariak egindako txostenean dioen bezala, Europar Batasunak helburu orokor gisa bere buruari ezarri dio 2030an kontsumitzen duen energiaren %32ak jatorri berriztagarria izatea eta Eusko Jaurlaritzaren jasangarritasun energetikoaren legeak hamarkada honetan, 2030a baino lehen bete beharreko betebeharrak batzuk ezartzen dizkie udalei. Horretarako Andoaini dagokionez Allurralde kiroldegiko estalkietako bat erabiliko genuke oholta fotoboltaikoa jartzeko, izan ere, alde batetik, egokia da horretarako eta bestetik, udal instalazio hori da elektroindar kontsumo handiena duenetako bat.

“Energia erkidegoa eratzeaz gain, ezinbesteko urratsa da Aldundiaren dirulaguntza jaso ahal izateko eta, gure ustez, udal gisa gure ardura da dirulaguntza hori eskuratu ahal izatea. Erkidegoa eratzeak berekin dakar estatuto batzuk onartzea eta Alkateari dagokio udalak erkidegoan duen ordezkaria izatea.

“Energia erkidego hori sortzea beste urrats bat da, udaletik eman nahi duguna, guztion artean Andoain berdegoa eta iraunkorragoa lortzeko.

“Bueno. Por hacer un pequeño, pequeño, resumen en erdera, como he dicho se trae a este Pleno la aprobación de la constitución de una comunidad energética de Andoain. Estas comunidades persiguen, tanto el ahorro de energía, como la suficiencia energética. En cuanto a obligaciones de leyes, tenemos unas obligaciones los ayuntamientos que cumplir antes del 2030, para ello se va a utilizar una cubierta del polideportivo, porque es adecuada para ello y porque es uno de los edificios municipales que más, consumo energético tiene en este momento.

“Por otra parte, tenemos la posibilidad de optar a una subvención de la Diputación Foral para este tema y bueno, creemos que es responsabilidad nuestra, como ayuntamiento, el poder optar a esa subvención.

“Para el caso de la constitución, por parte del ayuntamiento el representante tiene que ser en este caso la Alcaldesa de Andoain y, creemos que es importante este paso a dar y queremos un Andoain más verde y más sostenible. Gracias.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eguerdi on, guztioi. Guk egitasmoarekin bat egiten dugu baina, gauza batzuk esan nahi ditugu. Batetik, idazkariaren txostena gaur goizean iritsi da eta prozedura guztia, korrika eta presaka egin da eta gure ustez, horrelako gai garrantzitsuekin ezin gara horrela ibili, gauza bat da dirulaguntza, badakigu nola izaten diren, baina, gure ustez, denbora gehiagorekin lantzeko aukera izan behar dugu horrelako gaiak aztertzeko.

“Bestetik, gure ustez, udalak bere osotasunean izan behar du plangintza bat eta ez du funtzionatu behar dirulaguntzen araberako estrategia horrekin. Estrategia orokor bat egon behar du, sail guztiak barne hartu dituen, kasu honetan Kiroletatik joan da, baina, estrategia orokor bat egon behar du gai honen inguruan eta sail guztiak norabide berdinean joan beharko lukete.

“Prozedurari dagokionez, bai eskatzen dugu, prozedura gardentasunez egin dadila, helburua izan behar duelako, herritarrek eta ingurumena atera daitezela irabazten eta, ez dadila enpresa handien onurarako eta horrela izan dadin guk, gure jarraipena egingo dugu.

“Guzti hau esanda, tokiko energia komunitateak sortzeko filosofiarekin bat egin dugu eta aldeko botoa emango dugu.”



Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/05/06

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/05/2022

Jarraian, Santana andreak, hartu du hitza, honakoa esateko.

“Desde nuestro grupo también, como no puede ser de otra forma, estamos de acuerdo, es verdad que todo el procedimiento se ha llevado a cabo con urgencia, porque la tenía, por el tema de la subvención, pero sí nos gustaría en la línea de lo que ha dicho el Sr. Alvarez, hacer una planificación, una hoja de ruta para ir considerando, de hecho nosotros una vez también ya lo hemos propuesto, en otro tipo de edificios también poderlo hacer, y si tenemos una planificación pues que no nos pille el toro como ha sido el caso, tenerlo un poco ordenado y organizado.

“En cuanto a lo que dicho el Sr. Alvarez, de que esto tiene que ser para el bien de la ciudadanía y no de las grandes empresas, pues totalmente de acuerdo, creo que tenemos que trabajar conjuntamente en esa línea y por supuesto nuestro grupo está favor.”

Erantzuten du Romero andreak:

“Yo, simplemente, ya lo dije en la Comisión de Deportes y me puse en contacto con todos los portavoces y ya les expliqué que el motivo de la prisa y como bien han dicho, eran los plazos de la subvención y creemos que era importante optar a la subvención y por lo demás, esto se va a hacer con total transparencia.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik, bai, matizatu nahiko nuke, badirudi gaur modu aleatorioan erabaki dela polideportiboan egitea, korrika eta presaka, eta hori ez da horrela. Nik gogorarazi nahi dut duela urte eta erdi, lanketa bat egiten hasi zela udal ekipamendu guztietan, ingurumen txostena irakurritz gero, bertan teknikariak zehazten du nola egin den azterlan bat kontsumo energetiko guztiak, eraikin publiko guztietan aztertuz, lehenetsunak nola finkatzen diren eta, zinegotziak esan duen bezala, Romero andreak esan duen bezala, lehenetsun horietan polikiroldegia da demanda aldetikan, demanda eta kontsumo handienak dituen eta, horren arabera bi planteamendu egiten dira, bata tokiko ekipamendu komunitarioak, baina, udal eraikinen estalkietan jartzeko eta beste bat, bestelako zelai edo kanpoko gunetan ere sorkuntza gune berriak sortzeko. Hori orain dela urte bete, uste dut, zerbitzu batzordean eztabaidatzen dela eta erabaki horren haritikan eskatzen dira bi dirulaguntza lerro, esan nahi dut, ematen du inprobisazio bat dagoela honen atzean, baina, uste dut lanketa bat dagoela. Egia da, denborak harrapatu gaituela eta gabiltzala larri, bai, baina, ezin dezakegu esan zerotik hasten garenik ingurumen teknikariaren txostenean bertan aipatzen da hori guztia,

“Beraz, uste dut hori ere aipatu nahiko nukeela.”

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa adierazi du:

“Argitzeagatik bakarrik, bozkatzeko dena da akordio proposamena, ikusiko duzutenek, dago irizpen bat batzordean onartutakoa eta ondoren bidali zen akordio proposamena, non, beste zenbait gauzen artean, jasotzen den Alkatea dela udalaren ordezkaria.

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du.

1.- “ANDOAINGO TOKIKO EMERGIA KOMUNITATEA -TEK ANDOAIN” elkartearen eratzeari buruzko Egoitza soziala Andoaingo Goikoplaza zenbakirik gabekoan izango du, 20140 posta-kodea, Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera.

2.- Elkartearen antolaketa, barne-araubidea eta jardueraren aratuko dituzten estatutuak onartzea.2022PBAT0004

3.- Mainer Lainez Lazkoz izendatzea udal ordezkari gisa aipatu elkartearen.

4.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea elkartearen eratu eta erregistratzeko beharrezko kudeaketak egiteko eta erabaki hau eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren agiri publikoak zein pribatuak sinatzeko.



Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/05/06

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/05/2022

Eta beste aztergaririk ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 14.25 minutu zirenean. Idazkariak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E. / V.B.

Alkatea / La Alcaldesa

Idazkaria / El Secretario



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUebcd9af4-d6f7-450d-8866-86bdc00b1443**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**